

DBH1 NATur: "Lurra, etengabe aldatzen ari den planeta"

Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Ikerketa-helburua definitzen duen galderari buruzko informazioa bilatzeko eskainitako informazio-iturrien fidagarritasuna eta baliagarritasuna balioetsi, erantzuna justifikatuz.	<p>1.1. <i>Informazio-iturrien fidagarritasuna balioetsi eta egiaztatu ditu hainbat irizpidide kontuan harturik (egilea, eguneraketa, edukiak, nabigagarritasuna eta helburua).</i></p> <p>1.2. <i>Iturrien egokitasuna balioetsi du eta horretarako, arrazoi egokiak adierazi ditu.</i></p>
2. Hainbat iturritatik informazio egokia hautatuz, Lurraren barneko eta kanpoko osagaiekin eta dinamikarekin lotutako galderei erantzuteko, oinarrizko kontzeptuak baitan sailkatu, erlazioantu eta ikerketaren laburpen fitxa baitan erregistratu.	<p>2.1. <i>Lurraren oinarrizko elementuak ondo sailkatu eta erlazioatu ditu, jatorria azalduz.</i></p> <p>2.2. <i>Ikerketa-galderen inguruan jasotako informazioa ikerketaren laburpen fitxen bidez, erregistratu du.</i></p> <p>2.3. <i>Euskarri ezberdinetan eskuratutako informazioan, eragile geologikoak (kanpoko zein barneko) sailkatu eta erlazioatu ditu.</i></p> <p>2.4. <i>Eragile geologikoek (kanpoko zein barneko) egindako lana eta sortutako eraginak azaldu ditu, hitz egokiak hautatuz.</i></p>
3. Idatzizko informazioan oinarrituta, ahozko diskurtsoa sortu, edukia ondo egituratuz, lexiko egokia erabiliz, eta azalpena osatzeko bitarteko digitalak sortu eta erabili.	<p>3.1. <i>Ahozko diskurtsoaren informazioa ulergarria da, antolatu du eta hiztegi egokia erabili du.</i></p> <p>3.2. <i>Aurkezpen digialaren antolaketa egokia izan da: kopuru aldetik, testu masa aldetik, diseinu aldetik eta diapositiben arteko lotura aldetik.</i></p> <p>3.3. <i>Ahozko komunikazioa bideratu du, baliabide digitala erabiliz.</i></p>